

# Herri Aldizkaria

# Otamotz

## □ EITZAKO AUZOAK

giro ezin hobean ospatu zituen **San Isidro jaiak**, maiatzaren 12tik 15era bitartean. Jai Bartzordeak antolatutako egitarauak era guztietako ekintzak eskaintzen zituenez, auzokoei eta bertara inguratutako herritar ugariak ez zuten Eitzan aspertzeko betarik izan. Berrikuntzak ere izan ziren egitarauan, herriko bertso eskolako gazteen bertso saioa edota antzerki tailerraren emanaldia esaterako. Aipagarria da gainera, herriko talde kultural ezberdinei bere lana ezagutarazteko emandako aukera hau.



□ Ikusle eta antzerki zaletu ugari inguratu zen maiatzaren 8tik 14ra bitartean burututako **ZUMARRAGA ETA URRETXUKO IX. ANTZERKI ASTEko** antzerki emanaldietara. Guztira, Euskal Herria, Madril eta Galiziako zazpi taldek hartu zuten parte bertan eta egiazko istorioak, goxoak, dramatikoak eta barregarriak interpretatu zituzten Urretxuko Pagoeta Antzokian eta Zumarragako Euskadi enparantzan. Emanaldi ezberdinetan zinea, zirkoa eta hauek antzerkiarekin duten lotura ikusteko aukera ere izan zen. Antzezlanen maila oso ona izan zen orohar eta bertaratutako ikuslea oso gustura irten zen emanaldi guztietatik. Datorren urtean, hamargarren urteurrena ospatuko du Zumarraga eta Urretxuko antzerki asteak eta ordurako ere, egitarau ona prestatuko dute antolatzaileek.

□ **GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO** lehen kanporaketako lehen saioa Urretxuko Pagoeta Antzokian ospatu zen apirilaren 28an. Saio honetan

zortzi bertsolarik hartu zuten parte eta Jexux Mari Irazu suertatu zen irabazle 374'5 punturekin, bigarren postua Bixente Gorostidik lortu zuen 368 punturekin, hirugarrena Bernardo Azpillaga izan zen 362'5 punturekin. Nikolas Izetak 355 puntu lortu zituen, Amaia Agirrek 340 eta Juan Ramon Gerrikok 325. Egoitz Aizpuru eta Aitor Aldasoro zortziko nagusiko eta txikiko saioetan kanporatuak gertatu ziren. Elgoibarren maiatzaren 5ean izan zen kanporaketan **ANTTON ETXANIZ** zumarragarra, eta egun Tolosan bizi dena, aritu zen bertsoetan eta kanporatua izan zen.

□ **JOSE JULIAN IRIZAR**rek, Zumarragako alkateak, Bergarako epaitegian deklaratu zuen hilaren 18an, Zumarragako udalaren ordezkari moduan, Zumarragako udalak bere garaian intsumiso izatea erabaki zuelako. Epaia ez zuen Irizarrek aurkeztutako deklarazioa onartu bere ustetan kutsu politikoa zuelako honek. Espedienteak aurrera darrai eta aurrerantzean ere Bergarako epaitegira deituko dute Irizar.

EGENALIZATEAK

ZINTZU  
MINTZU  
ELIARTEA

**ETXE - AZPI**  
**JATETXEA**

*Igandeetan itxita!*

Mugitegi, 27  
20700 URRETXU

☎ 72 51 65

INPORTAZIO BERRIAK

**CAPADOCIA**

ALFONBRAK - KILIM - CICIM - SUMAK

Zuzeneko inportatzailea

Konponketak egiten dira

Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETXU

☎ 72 17 71

**URRETXU**  
**KARROZERIAK, S.L**

**Automobilien pintaketa**  
**eta txapa konponketa**


Azkoitirako bidea, z/g

20700 URRETXU ☎ 72 34 78

# BEHIN EZKONDU BEHAR ETA...

Pilarrek eskuak burura daramatza eta irribarre zoriontsuz erdi "kexuka" hasten da. "Alaba ezkontzea! Hori bai dirua barra-barra xahutzeko modua!"

Gaur egun ezkontzak egun berezia izateaz gain zulodun diru-zaku dira baina orokorrean gustura egiten dute hori ezkongai zein haien senitartekoek, aitzaki ederra baita egun bikaina pasatzeko



Maiatzetik hasita eta uda amaitzen den arte horrelako esaldiak entzun daitezke ezkontza kopurua biderkatu egiten delako. Bakoitzaren aukera izan ohi da norberaren ezkontza nahi bezala antolatzea, baina gehienek antzeko hornidurak izan ohi dituzte.

Ezkongaiak gehienetan familia eta lagunak eurekin izan nahi dituzte egun berezi horretan eta hori lortzeko deialdia gonbidapen txartelen bidez egiten da. 75 gonbidapen 13.000-14.000 pezetatan irtetzen da, baina honekin hasi besterik ez gara egin.

Edozein ezkontzatan oso garrantzitsua izaten da bapo jatea eta jatetxe on baten aukeraketak festaren arrakasta berma dezake neurri handi batean. Zumarragako jatetxeetako batean, menuak 6.700etik 10.500 pezeta artean daude pertsonako. Ezberdintasunak ardoetan, platerak prestatzeko eran eta entremes kalitatean daude, nahiz eta txanpaina eta likoreak prezio horretatik

kanpo gelditzen diren.

Bestalde musika parterik alaienetakoa izanik, ezin daiteke ahas-tu. 70.000 pezetaren truke ederki dantza egiteko aukera izango dugu.

Ospakizuna alde batera utzita, ezkontzaren ezaugarri sinbolikoen artean dugu fideltasun eta maitasunaren adierazle den eraztuna. 42.000 pezetaren truke eraztun pare erosoak lor dezakegu. Emaztegaiaren jantzia 300.000 pezetatan eta senargaiarena 90.000tan egon daitekeela ikusirik, hurbilpen bat egitearren, eraztunak erraz erosteko gauza dirudite.

Eta zein ezkontzatan ez daude loreak? Gure neskaren lore sortak 10.000 pezeta inguru balio dezake, hori da prezio estandarra, noski. Zer nolako loreak, halako dirutza. Kotxea eta eliza esaterako, dotore utzi daitezke 50.000 pezetagatik eta handik gora, nahi arte.

Guztia urte luzez gogoratzeko,

argazkiez gain bideoa ere erabili ohi da. 60.000 argazkiak eta 75.000 bideoa izan daiteke gutxi gora behera ordaindu beharrekoa. Eta nolabait ere gonbidatuak ere gogora daitezten, detailtxo batzuk eskaini ohi dira. Emakumeei egiten zaien detailtxoa bakoitzak 300 pezeta kosta dezake eta tabakoa eta puruak ere eskaintzen dira.

Azkenean, dena amaitu denean eta ezkongaiak jada senar-emazte direnean, merezitako eztei bidaia dator. Tenerife, Cancun, Tailandia, Kuba... Eskaintzak asko dira eta dataren arabera, azken prezioa aldakorra izaten da. Baina 350.000 pezeta inguruko bidaia izan daiteke taxuzkoa, eta hortik aurrera, nahi edota ahal den arte.

Honezkero Pilar, eta Pilar bezalako asko agian izututa daude seme-alaben ezkontzaren aurrean, "baina merezi du"○

## EDURNE

*Punta puntako moda*  
*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA



### RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700  
URRETXU

© 72 56 82  
72 22 92

Montajes e Instalaciones Electricas

**HERCE**  
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4 © 72 09 50

Tailerra: Mugitegi © 72 42 66

20700 URRETXU

## ELIZ - KALE

### AUTOESKOLA

Bidezar, 11

20700 ZUMARRAGA

© 72 04 52

## POLITENA

### TABERNA

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

## HEG ALDE AUTO

● KONPONKETAK OROKORREAN

● IBILGAILU SALMENTA

● GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA

PEUGEOT

PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

SAN JUANAK SANTA BARBARAN

Uda iristean, bai gure herriotan eta baita inguruan ere makina bat erromeri ospatzen da gaur egunean ere.

Urretxun 1557an eraiki zen Santa Barbara basilizaren inguruan, elkartzen gara urtez urte Sanjuanak ospatzeko.

Sanjuanak, Santa Barbaran 1918. urtean ospatu ziren lehenengo aldiz eta festa honen sortzailea eta bultzatzailea Honorio Alberdi jaunaren gidaritzapean zegoen Urretxuko lagun talde bat izan zen.

Beti jakin izan dugu festak behar diren bezala ospatzen, adibide gisa ikus dezagun, 1932ko Sanjuanetako festa egitaraua. Sanjuan bezperan zer ikusiko egitarauan eta lur-azpiko komunen inaugurazio garrantzitsua; hori bai biztanleen benetako beharretan pentsatzea!

Eta ikusi al duzue bezperan festa zer ordutan amaitzen zen? Ba, gaueko hamabietan, ez dira ez gauzak gutxi aldatu festa ordutegi arloan!

Ekainaren 24an kontuak kontu ez zuten ez nolanhiko bazkaria izaten, gaur egunean ere ez genioke menu horri muzin egingo, ez horixe! Argazkian azaltzen diren urretxuar hauek ere oso pozik dirudite, agian argazkian itxuroso ateratzeagatik daude hain irribarretsu, baina bazkari horretan pentsatze hutsarekin aurpegiak alaitu zitzaizkiela esango genuke guk □



**VILLARREAL DE URRECHUA**

Grandes Fiestas en honor de San Juan Bautista, los días 23 y 24 de Junio de 1932

**DIA 23**

De 9 a 11.—Mercado Extraordinario.  
 A las 11.—El "Chupin Perico", anunciará el principio de las fiestas.  
 A las 11 y medio.—Pasacalle por los "ixistularis".  
 A los 8 y medio.—Apertura de los nuevos retretes subterráneos.  
 A las 9.—La Banda Municipal, saliendo de la plaza Guernikako Arbolu ejecutando un pasacalle, se trasladará a la plaza Iparragirre. Seguidamente, se encenderá por un pequeño Jefe la tradicional hoguera de San Juan que estará adornada con la gigante vieja.  
 De 9 y medio a 10 y medio.—La Banda tocará baillables en el Frontón.  
 A las 10 y medio.—Se trasladará en carre-calles recorriendo las de Iparragirre, Jáuregui, Neco-lalde, Labeaga o Ipiñarreta. En el barrio de la estación tocará piezas baillables. Al regreso finalizará la fiesta a las 12, tocando una jota en la terraza.

**DIA 24**

A las 7 de la mañana.—Diana por las dos Bandas.  
 A las 9.—Las Autoridades, acompañadas por las Bandas y "DANTZARIS TXIKIS" subirán a la campa de Santa Bárbara.  
 A las 10.—Solemne Misa Mayor en la ermita de Santa Bárbara.  
 A las 11 y medio.—Exhibición de bailes por los "dantzaris" dirigidos por su maestro Josetxo Lizaralde.  
 A las 12 y medio.—Banquete a la sombra de los árboles de la campa, servido por el acreditado Restaurateur Sotero Plazaola.

<p>MENU DE 10,50 PESETAS</p> <p>Entremeses variados — Paella — Solemillo en menestra — Merluza con mayonesa o vinagreta          Pollo asado con ensalada — Jamón en dulce y salsas frías — Huevos hilados          POSTRES: Helado de crema y frutas variadas.          BEBIDAS: Claret especial y sidra — Café — Licores Elcano, Domecq, Byass, Cadenas y Mono          Cigarro de marca</p>	<p>MENU DE 8,00 PESETAS</p> <p>Entremeses variados — Paella          Pollo en menestra          Solemillo asado con ensalada          POSTRES: Helado de crema y frutas variadas          BEBIDAS: Vino y sidra superior — Café — Anís o Coñac Elcano y cigarro "porra".          Encargos a D. Sotero Plazaola</p>
--	---

A las 3 y medio.—Segunda exhibición de bailes por los "dantzaris txikis" y seguidamente romería amenizada por acordeones, gaitas, txistu y Banda Municipal.  
 Al regreso se disolverá en la plaza Guernikako Arbolu con un aurreku por los "dantzaris"  
 De 9 a 12.—Concierto de baillables en el Frontón.

LA COMISION DE FESTIVOS

NOTA.—Se concederá un premio de cien pesetas para el primer automóvil que suba a la campa de Santa Bárbara antes de la hora del banquete del día 24.

**INSALUS**

**ANDUEZA**

banaketa zerbitzua

Mugitegi, 85  
 20700 URRETXU ☎ 72 51 82

ITURGINTZA

**LUIS ANGEL**

Berogailuak eta gasa  
 Sukalde eta komonak

Deskargarako bidea, z/g. ☎ eta Faxa: 72 54 59

**JAKIN**

Idazmakinak eta kalkulagailuak

Labeaga, 12 ☎ 72 36 08 20700 URRETXU

**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
 20700 - ZUMARRAGA

**JAKA**


KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18  
 20700 URRETXU ☎ 72 14 13

Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia  
 20700 URRETXU ☎ 72 25 99

## Nola bizi izaten duzu azterketa garaia?



Jon Alvarez, 22 urte

Beno, nahiko presio handia izaten da azterketetan. Horregatik, tristeza izaten da bolada hau. Baina asteburua datorrenean, guztia pasatzen da... astelehenera arte, jakina.



Garikoitz Oiartzabal, 17 urte

Beti urduri, ikasi baldin baduzu, lasai, eta ez baduzu ikasi, aldeztu aurretik badakizu ez duzula aprobaturik, eta orduan ere lasai.



Aitziber Uriarte, 14 urte


Nahiko zaila egiten zait, baina ez naiz oso urduri jartzen. Sei azterketa, hiru eguneko, ditugu, baina egunerokoari jarraiki, irten egiten naiz.



Gloria Albarran, 19 urte

Urduri samar, nahiko larri, oso lo gutxi egiten dut, baina bukatutakoan eta emaitzak onak izanik sari ederra izaten duzu.

Aktore lanbidea duen urretxuarra. Aspaldi ekin zion bere aktore dohaia eskenatokietan erakusteari baina, ofizialki, duela hamabi urte hasi zen, "Gure herria" antzezlanean.



Ordutik denetik egin du. Antzerki obra ezberdinetan aktore gisa jarraitzeaz aparte, "Kaskazuri" eta "Txilipurdi" obrak idatzi eta zuzendu zituen Urretxun. Zinean ere aritua da eta baita telebistako "Bi eta Bat" saio umoretsuan ere. Azken honekin arrakasta dexente lortu zuen, nahiz eta berak aparteko garrantzirik ez eman honi.

Egun, "Oleanna" izeneko obra antzezten ari da, "In Fraganti" taldearen barnean, Zumarraga-Urretxuko antzerki astean parte hartuz. Bitxikeria gisa, Urretxun antzerki obra bat egiten duen aurreneko aldia da. Aurrerantzean antzezlana hau Euskal Herrian zehar antzeztuko dute.

Etorkizuneko asmoen berri galdetzean, momentuz antzerkian jarraituko duela esan digu.

JUAN LUIS MENDIARAZ



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga, 31  
20700 URRETXU

☎ 72 27 80



Akademia

Informatika  
eta  
Ingelesa  
Intentsiboak

Uztaileko Ikastaroak  
Matrikula Zaituz!

Areizaga, 12 (Urretxu) Tel: 72.52.98  
72.49.40



LLARGI, E.A. okindegia

☎ 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU



KIROL DENDA

Gernikako Arbola plaza 5, behe A  
20700 URRETXU  
Tel: 72 59 71

## IPARRAGIRRE PLAZA BERRIA EKAINAREN 16AN INAUGURATUKO DA

*Iparragirre plazak berrikuntza desberdinak izan ditu denboran zehar. Konponketa hauek herritarren behar eta nahiekin loturik egon dira. Hori dela eta, enparantza honen iragana zein izan den eta etorkizuna zein izango den adierazten saiatu gara lerro hauetan*

**XIV-XVIII.** mende bitartean ez zegoen plazarik gaur egun ezagutzen dugun leku berean. Enparantza bat zegoen gaur eguneko Gaztelekuaren parean. 1658. urtean, eliza aurreko zatia (egun dagoen leku berria) erre zenean plaza itxura hartu zuen berrikuntzarik egin ez zutelako. Eliza aurrean bi etxe zeuden bata "kartzela etxea" udalarena, eta bestea "Elizategi" Areizaga baroiarena. Garai honetan inguru hori bi mailatan egokitua zegoen, goian alde bat izanik eta behean beste bat.

**XVIII.** mendean biztanle kopurua areagotu zen eta osasun egoera gero eta okerragoa zen. Herritarrek gaixotasun ugari jasaten zituzten,

batez ere ur hornidurarik ez zegoelako. Hori zela eta pentsatu zuten herriko plazan iturri bat eraikitzea, ordurarte jendea mendira joaten baitzen ur bila. Herritarrek, aurrekontua oso garestia zela ikustean beraiek egingo zutela erabaki zuten. Horrela, 1764. urtean inauguratu zuten orain dela gutxirarte ezagutu dugun iturria.

**Konponketa hau Goiko kale eta Iparragirre kaleen hirigintza erreformarekin batera doa**

**XIX.** mendean Iparragirre hil zen eta orduan pentsatu zen plaza berritzea eta bere omenez estatua bat eraikitzea. Horretarako, "kartzela etxea" txikitu eta "Elizategi" erosi zioten Areizagari. Bi mailatan egokiturik zegoen plaza maila bakar batean utzi zuten. 1890. urtean inauguratu zuten Iparragirre plaza iturri, estatua, haritz eta guzti. **XX.** mendean hainbat berrikuntza ezagutu ditu enparantza honek. Adibidez, idi probetarako harri berri bat ipini zuten, zezen plaza moduan ere erabili izan da eta Iparragirrerren estatua hainbatetan garbitu dute.

Udalaren aldaketarekin batera, inauguratuko den plaza honek jadanik inauguratuta egon behar zuen baina arazo batzuk direla-eta atzeratu behar izan da. Alde batetik herritarrek ez dute atsegin jarria dagoen iturria eta orain beste bat ipiniko dute. Bestetik, nahiago izan dute maiztzean ez inauguratzea hauteskunde ekintza bezala uler ez zedin.



*Eguno iturria*

Enparantzari bizitasuna eman nahi izan diote berrikuntzarekin eta horregatik berriro ere bankuak ezarriko dituzte herritarrok lasai egon eta haurrak jolas daitezten. Azken finean aurreko ideia berreskuratu nahi izan dute. Konponketa hau Goiko kale eta Iparragirre kaleen hirigintza erreformarekin batera doa. Adibidez, kale hauek eta eliz aurreko ingurua oinezkoentzat bakarrik izan daitezten nahi dute. Baina hori nahiko zaila dela uste dute, 67 garaje egin baitira plazapeko parkingean eta derrigorrez sartu beharko direlako kotxeak. Hau oso desegokia izan daiteke batez ere haurrentzat. Bestalde, Azkoitira doan errepidea konpondu nahi dute baina oraindik Foru Aldundiaren erantzunaren zain daude. Horrek mesede handia ekarriko lioke inguru guztiari. Etxebizitzak ere egiten ari da plaza egin duen enpresa bera. Enparantza berritzeko aurrekontua 45 milioikoa da baina ordaindurik dago etxebizitzaren eraiketa dela-eta.



*Garai bateko iturria*

**URRETXU**  
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparragirre, 1    © 72 59 68    20700- URRETXU

**KALITATEA ● TEKNIKA ● ZERBITZUA ● MODA.**

**BIONA**

**AROSZTEGIA**

© eta Faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g 20700 URRETXU



Lerro hauen bidez Zumarragako Udaleko lorazainak zoriondu nahi ditugu, beren lana eta ezkutuan duten ongari berezi horri esker lanperna erraldoiak lortu dituztelako. Azken berriek diotenez, Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologoak herrira etorri dira, eta lanperna mota berri honi *Rolandis Lampernus* izena jarri diote. Hauek Nafarroa plazan aurki ditzakezu, baina argi ibili, babestuta daude eta!

NONDIK DATOR!

**IZAGIRRE**

*Urretxun oso zabaldua dagoen abizena dugu hau; Gipuzkoan Eizagirre eta Aizagirre abizenak ere azaltzen dira eta adituek diotenez lehenengo biak azkenekoaren aldaerak dira. Bere lehenengo osagaia '(h)aize' dugu eta bigarrena '-agerre' edo '-agirre'; beraz haizean ageri dagoen lekuaren esanahia du. Historian zehar abizen honen agerpenak nabariak dira; esate baterako Aizaguirre (Gipuzkoa, 1782), Ayçaguer, Eizaguirre, Izaguirre, eta toponimo moduan Aizaguerria (Iruñea, 1574). Hau da gaur egun den etimologiarik onartuena, zeren eta '-agirre' osagaia erraz 'egoa', 'iparra' eta 'eguzki' osagaiekin ikus baitaiteke*

**BATXILERGO IKASKETAK**

BBBren (Batxilergo Bateratu Balioanitzaren) helburua ikasleen kultura eta giza prestakuntza zabaltzea eta unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko prestatu eta orientatzea da.

BBB egiteko honako hauetako bat behar da: Eskola graduatua edo LH-I titulua.

Lehenengo bi ikasturteetan ikasle guztiek ikasgai berak dituzte; hirugarrenean honako bi aukera hauek izango dituzte; Letrak edo Zientziak

BBB amaitutakoan, batxiler-titulua jasotzen da, eta honako ikasketa hauek egin ahal izango dira:

- \* Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea (UBI)
- \* Bigarren mailako Lanbide-Heziketa (LH-II)
- \* Beste ikasketa batzuk, hala nola, fotografia, diseinua, arte dramatikoa, e.a.


UBI-n lau aukera daude:

- A: Zientzia eta Teknologia
- B: Bioosasuna
- C: Gizarte-Zientziak
- D: Giza-Zientziak eta Hizkuntzalaritza

Ministeritza-agindu ezberdinen bidez, unibertsitate-ikasketek UBIn egindako aukerarekin duten lotura ezartzen du. Lotura honek erlazio zuzena du unibertsitate-ikasketa ezberdinetako sarrerarekin.



Mari Paz Sacristan  
Institutuko Ikasketa  
Orientatzailea



ESKOLARTEKO KIROLAREN NONDIK NORAKOAK

*Polita izan ohi da larunbat goizero hainbat haur eskolarteko kirol lehiaketetan ikustea. Zumarraga Urretxuko ikastetxeetatik, zehazki 678 neska-mutilek parte hartzen dute, aurten matrikulatutako haurren % 42,11. Betiko kirolez aparte, beisbol eta igeriketa bezalakoak ere ikus ditzakegu*



Ez pentsa haur hauek kirola edozein modutan egiten dutenik. Guzti honen atzean batzorde bat dago. Ikastetxe ezberdinetako arduradunek osatutako batzordea eskolarteko kirol ekintzak antolatu eta gidatuko dituen proiektua burutzeaz arduratzen da.

Batzorde honek plangintza bat eratu du eta beraren helburu nagusia, kirola, hezkuntzaren atal bat gehiago izatea da. Hau dela eta, haurrek kirolaz gozatzeari garrantzi handia ematen zaio eta norgehiagokeria ekidin nahi da.

Horretarako hirugarren eta laugarren mailakoek, *benjaminak*, kirol ugaritan parte hartzen dute urtean zehar, kirol bakoitzaren muina ikas dezaten. Honek, benetan atsegin zaien kirola zein den ikusten laguntzen die. Esan behar da, maila honetan, neska eta mutilak batera aritzen direla, ez, ordea,

goragoko mailetan.

Bosgarren eta seigarren mailan, *alebinetan*, ohiko kirolak direnak egiten direla esan dezakegu. Ohiko kirol hauek, areto futbola, saskibaloia eta eskubaloia dira. Ikasturtean zehar, bakoitza hilabete eta erdiz egiten da, honela, hirurak egiteko astia izanez. Bestalde, igeriketa eta atletismoko bi ihardunaldi ere izaten dira.

**Norgehiagokeria ekidin nahi da baina hau ez da beti lortzen**

Azkenik, zazpigarren eta zortzigarren mailakoak daude, *infantilak*. Hemen, bakoitzari nahi duen kirola aukeratzeko askatasuna ematen zaio. Ligaxka bat jokatu eta

lehen suertatzen denak, Gipuzkoako Txapelketan jokatzeko aukera izango du. Gainontzeko guztiak, udaberriko txapelketa moduko bat jokatzeko dute. Bertan, ezin da ligaxkan aukeratu den kirol mota berbera hautatu.

Eskolarteko kirol plangintza honek, diputazio zein bi udaletatik laguntza ekonomikoa jasotzen du. Diru hau, entrenatzaileei, beraien laguntza eskertzeko erabiltzen da.

Aipatu behar da, dena den, batzordearen proiektuak finkapen sendoagoa behar duela oraindik. Arduradunen esanetan gauzak ondo egiteko plangintza birplanteatu egin beharko litzateke. Proiektuaren helburuak finkatu ziren hasera batean baina behar bezalako garapenik ez dute izan, hainbat aldiz ahaztuak izan direlarik □

**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23

**ZURICH**  
Aseguruak

Agustin Elias Larrea  
Erregistro zenbakia: 2072563049 G

© 72 37 76 Faxa: 72 53 46  
Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRETXU


**TXINATAR JATETXEA**

Bilerak, jai afariak  
Etxerako zerbitzua

Labeaga 33 (Madaya) URRETXU © 72 52 43

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

## SAN ANTONIO JAIAK

**Ekainak 10:** Ukraniako **KALINA** dantza taldearen saioa, Areizaga-Kalebarren plazan, inguruko tabernari-ek antolatuta. Saioaren ondoren bertako produktuak salduko dira.

**Ekainak 11:** Antzerki tailerrak **BUFONERIAS** antzezlanaren taularatuko du Areizaga-Kalebarren plazan.

## DANTZARI TXIKI EGUNA

**Ekainak 4:** **IRRINTZI** dantza taldeak antolatutako dantzari txiki eguna.

**Ekainak 18:** **LURRA** dantza taldeak antolatutako dantzari txiki eguna.



**Karen Anthea Gutteridge**, 5 urte beteko ditu ekainaren 4an. Legazpi Eskoletako.



**Laura Urkia**, 10 urte beteko ditu ekainaren 11n. Labeaga ikastetxekoa.



**Ane Aramendi**, 6 urte beteko ditu ekainaren 15ean. Lourdesko Ama ikastolako.



**Nagore Mora**, 7 urte beteko ditu ekainaren 20an. Gainzuri ikastetxekoa.



**Sigrid Sandes**, 4 urte beteko ditu ekainaren 27an. Zelai Aristi ikastetxekoa.



**Ana Prieto**, 12 urte beteko ditu ekainaren 29an. San Jose ikastetxekoa.

## ERAKUSKETAK

**Ekainaren 5etik 11ra:** **Gainzuri** ikastetxeko ikasleek egindako eskulanen erakusketa Aldaketa erakustokian.

**Ekainaren 13tik 18ra:** Sasieta Mankomunitateak birziklapenari buruzko erakusketa.

## LEHIAKETAK

Ekainaren 2an bukatzen da Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako **Urretxu eta Zumarragako eskolarteko VIII. Bertso paper lehiaketan** lanak aurkezteko epea.

Urretxu eta Zumarragako udalek, **Urretxu eta Zumarragako VII. pintura lehiaketa**, argazki lehiaketa eta **literatur eta komiki lehiaketaren** oinarriak jakinarazi dituzte. Lanak aurkezteko epea irailaren 22an bukatuko da.

## SAN JUAN JAIAK

**Ekainak 18:** Goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak bitartean, Goierri Kirol Elkarteak bere bazkideentzat antolatutako **PLATER TIRALDIA** Odriozolane-ko plazatzon.

**Ekainak 23:** Aldiri kiroldegian **areto barruko futbol txapelketaren** finalak arratsaldeko 8:30etatik aurrera.

**Ekainak 23:** Gaueko 10:30etan eta Gernikako Arbola plazan, **San Juan** sua piztuko da, inguruan, dantza, kanta eta txalaparta izango da. Ondoren, **Musika Ikastetxeko trikitilari** bandak trikitixa joko du.

**Ekainak 24:**

**GOIZEAN:** 11etan, **herri meza** eta **V. toka txapelketa**. 12tan **Irimora XIV. igoera**, ondoren **LURRA** dantza-taldearen saioa, gero **Mañukorta** eta **Igartzabal** bertsolarien saioa.

**ARRATSALDEAN:** Eguerdiko 2etan **herri bazkaria**, 5etan **erronomia**, 8etan **ohiko jaitziera**.

**GAUEAN:** 11etan, **JOSE LUIS GARMENDIA** urretxuarraren **diapositiba emanaldia** Areizaga-Kalebarren plazan.

**Ekainak 25:** Goizeko 11etan Mugitegi industrialdean **III. San Juan Saria txirindulari proba** izango da, mutil kokor, eskolume eta gaztetxoentzako mailatan.

**URRETXUKO**

**ALDAPA**

The graphic features several anthropomorphic drinks: a beer glass labeled 'OSABA' under a beer umbrella, a wine glass labeled 'LAKE', a beer glass labeled 'GOIKO KALE', a wine glass labeled 'EZKURRA', and a beer glass labeled 'FLORIDA'. The text 'URRETXUKO' is arched at the top and 'ALDAPA' is arched at the bottom.